# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

# ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia Iruña, 2002ko maiatzaren 31 59 ZK.

## A U R K I B I D E A

F SAILA:
**Galderak:**
—Galdera, Los Arcosko hondakin berezien tratamendurako zentroaren proiektuan aurreikusiriko lanpostuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (2. or.).
—Galdera, ikastetxeen mantentze lanen, jardunaren eta zainketaren gastuak banatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (2. or.).
—Galdrea, Nafarroako Gobernuak eremu mistoko ikastetxeetako ikasleek eta langileek euskara erabiltzeko duten eskubidea nola bermatuko duen jakiteko. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
—Galdera, Nafarroako Gobernuak laugarren mapa soziolinguistikoan parte ez hartzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).

I SAILA:
**Parlamentuko Jarduera:**
—2002ko apirilean egindako bilerak (6. or.).
—2002ko apirilean Biltzarreko Idazkaritza Orokorrean sartu diren dokumentuen zerrenda (9. or.).

**F saila:**
**GALDERAK**

# Galdera, Los Arcosko hondakin berezien tratamendurako zentroaren proiektuan aurreikusiriko lanpostuei buruzkoa

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak Los Arcosko hondakin berezien tratamendurako zentroaren proiektuan aurreikusiriko lanpostuei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko otsailaren 11ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko martxoaren 4an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**ERANTZUNA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak galdera egin du Los Arcosko hondakin berezien tratamendurako zentroari buruz. Hona hemen Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna

1.Udalez gaindiko plan sektoriala eta haren ingurumenaren gaineko eraginaren azterlana osatzen duen dokumentazioak dioenez, zentroak eraikitzeko aldian zuzeneko 80 lanpostu sortuko ditu eta ustiatzeko aldian zuzeneko 60 lanpostu. Ez dago datu zehatzik zeharkako enpleguaz eta eragindakoaz, baina aipatutako agirietan adierazirik dago horiek zuzeneko lanpostuen % 25 egiten ohi dutela.

2. Aipatutako dokumentazioan ez dago zenbakirik zehazturik.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 181. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2002ko otsailaren 26an

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

# Galdera, ikastetxeen mantentze lanen, jardunaren eta zainketaren gastuak banatzeari buruzkoa

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Mª Isabel Arboniés Bermejo andreak ikastetxeen mantentze lanen, jardunaren eta zainketaren gastuak banatzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko otsailaren 11ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko martxoaren 4an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**ERANTZUNA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Isabel Arboniés Bermejo andreak galdera egin du ikastetxeen mantentze lanen, jardunaren eta zainketaren gastuak banatzeari buruz. Hona hemen Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren erantzuna:

Nafarroan, printzipio orokorra bigarren hezkuntzako ikasleak ikastetxe berariazkoetan eskolatzea bada ere, zenbait ikastetxe publikok derrigorrezko bigarren hezkuntzako ikasleak ere hartzen dituzte. Nolanahi ere, Erriberriko eta Castejóngo ikastetxeetan ez da DBHren bigarren zikloa irakasten, lehendabizikoa baizik.

LOGSE delakoak, hamazazpigarren xedapen gehigarrian, araubide orokorreko irakaskuntza ezunibertsitarioetarako eraikinen kontserbazio, mantentze eta zainketa lanetako gastuen finantzazioa arautzen du.

Neurri fiskalei, administratiboei eta gizarte arlokoei buruzko abenduaren 30eko 13/1996 Legearen 168. artikuluak

LOGSEren hamazazpigarren xedapenaren bigarren idatz-zatia aldatu zuen, testu berri hau emateko:

"Estatuak edo autonomia erkidegoek, eskolatzeko premiak direla-eta, hezkuntza administrazioen menpeko eskolaurreko, oinarrizko hezkuntza orokorreko edo hezkuntza bereziko ikastetxeak kokaturik dituzten udal eraikinak atxiki behar dituztenean bigarren hezkuntza edo lanbide heziketa irakasteko, orduraarte udalek, xedapen indardunen arabera, ikastetxe horiei zegokienez ordaintzen zituzten gastuak hartu beharko dituzte beren gain, kasuan kasuko udalek izan dezaketen titularitate demaniala ezertan ukitu gabe.

Aurreko idatz-zatian xedatutakoa ez da aplikatzekoa izanen Haur eta Lehen Hezkuntza edo Hezkuntza Bereziaz gain, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza irakasten den udal ikastetxeen kasuan".

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen zikloa hartzen duten ikastetxe publikoak honakoak dira: Arantza, Betelu, Castejón, Faltzes, Goizueta, Irurtzun, Lekunberri, Los Arcos, Erriberri, eta Urdazubi-Zugarramurdi.

Ondokoak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako institutuak (DBHIak), hezkuntza maila osatzen duten bi zikloekin, toki entitateen jabetzako lokaletan daudenak, Agoizko DBHI, Azagrako DBHI, Berriozarko DBHI, Zarrakazteluko DBHI, Kortesko DBHI, Doneztebeko DBHI, Garraldako DBHI, Larraintzarko DBHI (Ultzama), Mendaviako "Joaquín Romera" DBHI, Noaingo "Elortzibar" DBHI (Elortzibar), Otsagabiako DBHI, Erronkariko DBHI eta Vianako DBHI.

Indardun legeak aplikaturik, lehen hezkuntzarekin batera DBHko lehen zikloa irakasten den ikastetxe publikoen titular diren toki entitateek bere gain hartu behar dute ikasle horiek eskolatzetik heldu diren gastuak.

Alabaina, hezkuntza administrazioak ordaina ematen die toki entitateei beste herri batzuetako ikasleak eskolatzeak eragindako gastuengatik, eta eskola kontzentrazioaren buru diren toki entitateei modulu ekonomiko bat ordaintzen die bizitokitik kanpora joan beharra duen ikasle bakoitzeko, haur eta lehen hezkuntzan eta DBHko lehen zikloan. Hortaz, toki entitate horiek ez dute bere gain hartzen udaletik kanpoko ikasleak eskolatzeak dakarren gastua, baizik eta soilik bertakoena (maiatzaren 18ko 186/2001 Foru Agindua eta abenduaren 5eko 447/2001 Foru Agindua).

2001eko ekitaldian, nor bere herritik kanpora atera beharra duen ikasle bakoitzeko finantziazio modulua 56.083 pezetakoa izan da urtean (337,07 euro).

Udal titularitateko derrigorrezko bigarren hezkuntzako institutuen kasuan, ez daude LOGSEren hamazazpigarren xedapen gehigarriaren bigarren idatz-zatia betetzetik salbuetsirik eta beraz, hezkuntza administrazioak ordaintzen ditu hezkuntza maila horretan aritzen diren ikaslek eragindako gastuak.

Hasiera batean toki entitateak dira ikasleak eskolatzeko gastu guztiak ordaintzen dituztenak, baina hezkuntza administrazioak finantzatzen ditu ondoren.

Kontserbazio, mantentze eta jardunbideko gastuen ordaina unitateko edo ikasleko modulu ekonomiko bat ordainduz ematen da (maiatzaren 22ko 187/2001 Foru Agindua eta azaroaren 21eko 434/2001). Unitateko ematen da kasuan kasuko ikastetxeko DBHren unitateen ratioa, osotara, 16 ikasle edo gehiagokoa denean unitate bakoitzeko, eta ikasleko ematen da, berriz, ratio hori 16 ikasletik beherakoa denean unitate bakoitzeko.

Zaintza eta segurtasun gastuak, eskolazainarenak eta garbitasunarena –kontuan harturik udaletan eta ikastetxeetan oso egoera desberdinak daudela– toki entitateek kontzeptu horiek eragindako gastuak direla-eta egindako deklarazioa ordainduz berdintzen dira, ikastetxean, mailaz maila, dauden ikasleen kopuruaren proportzioan (urriaren 25eko 398/2001 Foru Agindua).

Kontserbazio, mantentze eta jardunbideko gastuetarako –alegia, ura eta saneamendua, elektrizitatea, berokuntza, telefonia, konponketak eta higiezinaren kontserbazioa ordaintzeko– unitate bakoitzeko modulu ekonomikoa Nafarroako Gobernuaren bigarren hezkuntzako institutuetarako erabiltzen den batez bestekotik lortzen da. 2001ean modulua 370.055 pezetakoa (2.224,08 eurokoa) izan da unitateko edo 23.129 pezetakoa (139,01 eurokoa) ikasleko.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2002ko martxoaren 1ean

Hezkuntza eta Kultura kontseilaria: Jesús Mª Laguna Peña

---

# Galdrea, Nafarroako Gobernuak eremu mistoko ikastetxeetako ikasleek eta langileek euskara erabiltzeko duten eskubidea nola bermatuko duen jakiteko

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Mª Isabel Arboniés Bermejo andreak Nafarroako Gobernuak eremu mistoko ikastetxeetako ikasleek eta langileek euskara erabiltzeko duten eskubidea nola bermatuko duen jakiteko egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko otsailaren 11ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko martxoaren 4an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**ERANTZUNA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Mª Isabel Arboniés Bermejo andreak galdera egin du eremu mistoko D ereduko ikastetxeetako langileen lanpostuei buruz. Hona hemen Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren erantzuna:

1. Abenduaren 15eko 18/1996 Euskararen Foru Legearen 17. artikuluak aitortu egiten du herritarren eskubidea eremu mistoan euskara zein gaztelania erabiltzeko Nafarroako administrazio publikoei zuzentzerakoan, eta bi bide ezartzen ditu eskubideaz baliatzeko. Lehena da urteroko lan eskaintza publikoetan zehaztea zein lanpostutan den euskara nahitaez jakin beharreko baldintza eta bigarrena da gainerako lanpostuak eskuratzeko garaian merezimendu gisa baloratzea euskaraz jakitea.

Uztailaren 30eko 203/2001 Foru Dekretuaren bidez adierazi zen Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zein lanpostu –Hezkuntza eta Kultura Departamentuko irakaskuntzako langileenak kenduta– eskuratzeko den nahitaezkoa euskaraz jakitea, maila zehaztuta, eta zeinetan hartu behar den merezimendu gisa.

Foru Dekretu horretan zehazten da eremu mistoan Hezkuntza eta Kultura Departamentuari atxikitako eskolazain eta zerbitzu orokorretako langileen lanpostu guztiak, eremu mistokoak, D ereduko ikastetxeetakoak barne, gaztelaniazkoak direla eta hain zuzen ere D ereduko ikastetxeetan baizik ez dela euskara merezimendu gisa hartuko lanpostuak betetzeko prozesuetan.

Horrenbestez, Foru Dekretu horretako 2. artikuluan, eremu mistoko ikastetxeei atxikitako eskolazain eta zerbitzu orokorretako langileei buruz ezarritako lanpostu zehaztapena bat heldu da Euskararen Legearen asmo eta hitzekin.

2. Azkenik, eremu mistoan kokaturiko D ereduko ikastetxeetan destinoa duten administrari laguntzaileen inguruan, ikastetxe horiek dituzten lanpostuetako batean euskaraz jakin beharrari eutsi zaio, eta gainerakoetan merezimendutzat hartzen da. Horrela, bide ematen da langile horiek esleiturik dituzten eginkizunak betetzeko eta aldi berean haien lan eskubideak errespetatzen dira.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2002ko martxoaren 1ean

Hezkuntza eta Kultura kontseilaria: Jesús Mª Laguna Peña

# Galdera, Nafarroako Gobernuak laugarren mapa soziolinguistikoan parte ez hartzeari buruzkoa

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak Nafarroako Gobernuak laugarren mapa soziolinguistikoan parte ez hartzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko otsailaren 11ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko martxoaren 4an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**ERANTZUNA**

EA/EAJ-PNV Parlamentuko Taldeko Eusko Alkartasuneko Begoña Errazti Esnal andreak galdera bat aurkeztu du Nafarroako Gobernuak laugarren mapa soziolinguistikoan parte ez hartzeari buruz. Hona hemen Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren erantzuna:

1. Suposatu behar da “Nafarroako mapa soziolinguistikoa” esatean “Euskal Herriko inkesta soziolinguistikoa” esan nahi duela, zeinetan, bi edizioetan, Euskal Autonomia Erkidegoko, Ipar Euskal Herriko eta Nafarroako Foru Komunitateko datuak agertzen ziren.

Zure hitzetan ageri den “Euskal Herria” hitza nahasia dela albo batera utzirik, Hezkuntza eta Kultura Departamentuaren iritzia da inkesta horrek ez diela erantzuten Nafarroako Foru Komunitateak bere errealitate soziolinguistikoa ezagutzeari dagokionez dauzkan premiei. Afera, beraz, ez da azterlanak egiteari uko egitea; aitzitik, nahi duguna da azterlanak eta inkestak egiten badira, Nafarroatik bertatik eskaturik, gure errealiteari eta Nafarroako gizartearen premia eta interesei egokituagoak izatea.

2. Bistan da Hezkuntza eta Kultura Departamentuan hartzen diren erabakien erantzule nagusia Hezkuntza eta Kultura kontseilaria da.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2002ko martxoaren 1ean

Hezkuntza eta Kultura kontseilaria: Jesús Mª Laguna Peña

**I saila:**
**PARLAMENTUKO JARDUERA**

# 2002ko apirilean egindako bilerak

**MAHAIA ETA ELEDUNEN BATZARRA**

8, 15, 22 eta 29an.

**OSOKO BILKURA**

18an:

– Nafarroako arriskuko material espezifikoak suntsitzeko arauak ematen dituen Foru Lege proiektuari aurkezturiko osoko zuzenketak eztabaidatu eta bozkatzea. Zuzenketak Rubio Salvatierra andreak eta Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak eginak dira.

– 2002-2004rako Nafarroako Enplegurako Plana finantzatzeko neurri osagarriei buruzko Foru Lege proiektuari aurkezturiko osoko zuzenketak eztabaidatu eta bozkatzea. Zuzenketak Rubio Salvatierra andreak eta Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak eginak dira.

– Nafarroako aurrekontu orokorrek Hirugarren Munduko herrialdeekiko elkartasunerako erabili behar duten ehunekoa finkatzeari buruzko Foru Lege proposamena aintzat hartzea, bidezkoa bada. Proposamena Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztu du.

– Garapenerako lankidetzari buruzko martxoaren 9ko 5/2001 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena aintzat hartzea, bidezkoa bada. Proposamena Rubio Salvatierra andreak.

– Nafarroako Gobernuak Vianako Printzea Erakundearen bitartez egiten duen politika kulturalari buruzko jabeldura, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua.

– Komunitatea modernizatzeko helburuz Nafarroako Gobernuak egiten dituen garapen- eta azpiegitura-politikei buruzko jabeldura, Batasuna Parlamentuko Taldeak aurkeztua.

– Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkezturiko mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Haren bidez, Nafarroako Gobernua erditze multipleak izan dituzten familientzako dirulaguntzak aldatzera premiatzen da.

– Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkezturiko mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Haren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da Hauteskundeen Araubide Orokorrari buruzko Lege Organikoa alda dezan, hain zuzen ere hauteskunde prozesu guztietan demokrazia paritarioa ezartzea bideratzeko behar diren neurriak jartzeko.

– Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak aurkezturiko mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Haren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da babes ofizialeko etxebizitzak deitutakoak salerosteko eskubidea arau dezan.

– Milagros Rubio Salvatierra andreak aurkezturiko mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ikuskizun publikoak eta josteta jarduerak arautzearen inguruan zenbait neurri har ditzan.

– Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkezturiko mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Haren bidez, nazioko Gobernua premiatzen da Senatuaren eraldaketari bultzada eman diezaion.

25ean:

– Nafarroan etxebizitza arloko jarduketa babesgarriei aplikatuko zaizkien moduluak ezarri eta etxebizitza erosteko laguntzak handitzen dituen Foru Lege proiektuari buruz Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Batzordeak onetsitako irizpena eztabaidatu eta bozkatzea.

– Nafarroako Foru Komunitatean irrati-komunikazioko instalazioak antolatzeko Foru Lege proposamenari buruz Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Batzordeak onetsitako irizpena eztabaidatu eta bozkatzea.

– Gaixoaren zenbait eskubide, hain zuzen ere informazioa eta agiri klinikoak eskuratzekoa eta biziaren gaineko testamentua egitekoa, arautzen dituen Foru Lege proposamenari buruz Osasun

Batzordeak onetsitako irizpena eztabaidatu eta bozkatzea.

– Nafarroako Unibertsitate Publikoa sortzeari buruzko apirilaren 21eko 8/1987 Foru Legea aldatu eta Tuteran unibertsitate-ikasketak ezartzeari buruzko Foru Lege proposamena aintzat hartzea, hala erabakiz gero. Proposamena Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztu du.

– Nafarroako Foru Komunitateko Gobernuari eta Administrazioari buruzko Foru Lege proposamena aintzat hartzea, hala erabakiz gero. Proposamena Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak aurkeztu du.

– Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeak aurkezturiko mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Haren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Junior-Enpresak sustatzeko dirulaguntzak ezar ditzan.

– Rubio Salvatierra andreak aurkezturiko mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Haren bidez, Gobernu zentrala premiatzen da intsumisioa penalizatzen duten Zigor Kodearen zenbait artikulu kentzera.

– Rubio Salvatierra andreak aurkezturiko mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Haren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du Los Arcosen industria hondakinen tratamendurako zentroa jartzearen kontra dagoela erabat.

– Batasuna Parlamentuko Taldeak aurkezturiko mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Hizkuntza Eskola Ofizialeko euskara-irakasleen plantilla osa dezan.

## LURRALDEAREN ANTOLAMENDU, ETXEBIZITZA ETA INGURUMEN BATZORDEA

9an:

– Lan bilera. Bertan, LAB, ELA/STV, CCOO eta UGT sindikatuen ordezkari batzuek agerraldia eginen dute, Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuko egoera azaltzeko.

11n:

– Nafarroan etxebizitza arloko jarduketa babesgarriei aplikatuko zaizkien moduluak ezarri eta etxebizitza erosteko laguntzak handitzen dituen Foru Lege proiektua eztabaidatu eta bozkatzea.

30ean:

– Kontuen Ganbarako lehendakariaren agerraldia, Eledunen Batzarrak hala eskatuta, “Babes ofizialeko etxebizitzen moduluen bilakaera” izeneko txostena aurkezteko.

## HERRILAN ETA AZPIEGITURA BATZORDEA

9 eta 16an:

– Nafarroako Foru Komunitatean irrati-komunikazioko instalazioak antolatzeko Foru Lege proposamena eta hari aurkezturiko zuzenketak eztabaidatu eta bozkatzea.

– Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkezturiko mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Erriberri aldean telebistako emisioak behar bezala hartzeko neurriak har ditzan.

16an:

– Lan bilera. Bertan, Irurtzungo saihesbidearen aldeko Plataformako ordezkari batzuek agerraldia eginen dute, herri horretan jasaten dituzten trafiko-arazoei buruz informatzeko.

## OSASUN BATZORDEA

10 eta 16an:

– Gaixoaren zenbait eskubide, hain zuzen ere informazioa eta agiri klinikoak eskuratzekoa eta biziaren gaineko testamentua egitekoa, arautzen dituen Foru Lege proposamena eta berari aurkezturiko zuzenketak eztabaidatu eta bozkatzea.

16an:

– Antsoaingo Udalaren agerraldia, Eledunen Batzarrak hala eskaturik, osasun-etxe bat eraikitzearen beharrari buruz informatzeko.

16an:

– Lan bilera. Bertan, Amagintza elkartearen ordezkari batzuek agerraldia eginen dute, egiten dituzten jardueren eta lortu nahi dituzten helburuen berri emateko.

23an:

– Osasun kontseilariaren agerraldia, Eledunen Batzarrak hala eskatuta, II. Zabalguneko Osasun Etxea eraiki eta abiarazteari buruz informatzeko.

30ean:

– Lan bilera. Bertan, Nafarroako I. Motako Diabetikoen Elkartearen ordezkari batzuek agerraldia

eginen dute, egiten ari diren kanpainari buruz informatzeko.

– Lan bilera. Bertan, SOS-Nafarroako mediku koordinatzaileek agerraldia eginen dute, bitarteko kontratua duten profesionalen egoerari buruz informatzeko.

30ean:

– Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak aurkezturiko mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Haren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko oinarrizko osasun laguntza gaurkotu dezan.

## GIZARTE GAIETAKO BATZORDEA

10, 17 eta 24an:

– Ponentzia, etxeko indarkeriari eta bikotekideen artekoari aurrea hartzeko neurriei buruz Foru Lege proposamena eztabaidatzeko.

11n:

– Familiari laguntzeko 2001etik 2004ra bitarteko planari aurkezturiko proposamenak eztabaidatzearekin jarraitzea.

11n:

– Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilariak Etorkinak Nafarroan gizarteratzeko Plana aurkeztea.

– Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilariak Nafarroako Foru Komunitatean arazo sozialak dituzten haur eta nerabeei laguntzeko Plana aurkeztea.

19an:

– Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilariaren agerraldia, Eledunen Batzarrak hala eskatuta, hein batean ezgaituak dauden pertsona helduak zaintzeko Nafarroako Fundazioa eratzeari buruz informatzeko.

19an:

– Lan bilera. Bertan, drogamenpekotasunak ukitutako familien elkarteko (alegia, ADEFADeko) ordezkari batzuek agerraldia eginen dute, zenbait gairi buruz informatzeko.

## INDUSTRIA, LAN, MERKATARITZA ETA TURISMO BATZORDEA

12an:

– Industria eta Teknologia, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilariaren agerraldia, Eledunen Batzarrak eskatuta, enpleguaren egoerari buruz informatzeko.

## HEZKUNTZA ETA KULTURA BATZORDEA

16an:

– Hezkuntza eta Kultura Batzordeko kideen bisita Burlatako Ermitaberri ikastetxe publikora.

17an:

– Nafarroako Gobernuko Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren eta Vianako Printzea Erakundeko zuzendariaren agerraldia, Eledunen Batzarrak hala eskatuta, Jorge Oteiza Fundazioko patronatuak urtarrilaren 31n egin zuen bilera eztabaidatsuari buruz informatzeko.

17an:

– Lan bilera. Bertan, agerraldia eginen dute Jorge Oteiza Museoa Fundazioko Patronatuko zenbait kidek, joan den urtarrilaren 31ko bileran izandako gertaerei buruz informatzeko.

## LEHENDAKARITZA, FUNTZIO PUBLIKO ETA BARNE BATZORDEA

23 eta 25ean:

– Nafarroako Podologoen Elkargo Ofiziala sortzeari buruzko Foru Lege proiektua eta hari aurkezturiko zuzenketak eztabaidatu eta bozkatzea.

– Nafarroako Fisioterapeuten Elkargo Ofiziala sortzeari buruzko Foru Lege proiektua eta hari aurkezturiko zuzenketak eztabaidatu eta bozkatzea.

– Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Haren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuaren Plan Zuzentzailea bete dezan.

## NAFARROAKO INMIGRAZIO POLITIKAREN ILDOAK EZARTZEKO IRIZPIDE NAGUSIAK AZTERTZEKO BATZORDE BEREZIA

24an:

– Lan bilera. Bertan, UGT, ANAFE, Cáritas Diocesana, “Papeles y derechos para todos. Denontzat” eta Espainiako Guretze Gorriko ordezkariek agerraldia eginen dute Nafarroako inmigranteen erregulazio prozesuaren berri emateko.

# 2002ko apirilean Biltzarreko Idazkaritza Orokorrean sartu diren dokumentuen zerrenda

**2an:**

– Ofizioa, Konstituzio Auzitegiarena. Horren bitartez, Saltoki handietarako zerga bat sortzeko azaroaren 27ko 23/2001 Foru Legearen aurkako 1336/02 konstituziokontrakotasun-errekurtsoa tramitera onartu izanaren berri eman du.

– Galdera, komunikazio informatikoetan erabiltzaileak babesteari buruzkoa, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak aurkeztua.

– Galdera, Médicos Sin Fronterasek oinarrizko medikamentuak eskuratzeko xedez eginiko kanpainan laguntzeari buruzkoa, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak aurkeztua.

– Idazkia, Nafarroako Gobernuarena. Horrekin batera, Asteraingo errepideak Irurtzunen eragiten dituen arazoei buruz foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak eginiko galderaren erantzuna.

– Idazkia, Nafarroako Gobernuarena. Horrekin batera, ekialdeko ingurabideko obreri buruz Batasuna Parlamentuko Taldeak eginiko galderaren erantzuna.

– Idazkia, Batasuna Parlamentuko Taldearena. Horren bitartez, Nafarroako 1. Motako Diabetikoen Elkarteko ordezkariek agerraldia egiteko eskatu du.

**3an:**

– Zuzenketak, Lurraldearen antolamenduari eta hirigintzari buruzko 10/1994 Foru Legeari xedapen gehigarri bat gehitzeko Foru Lege proposamenari Unión del Pueblo Navarro Parlamentuko Taldeaak aurkeztuak.

– Adierazpen politikoa egiteko proposamena, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bitartez, Ekialde Hurbileko indarkeria egoera larriaren aurrean su-etena eta Israelgo armada berehala erretiratzeko eskatzen da.

– Mozioa, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Haren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bizikletari buruzko plan zuzentzaile bat presta dezan.

– Erabakia, Nafarroako Gobernuarena, Nafarroako Gobernua Justizia Administrazioaren politika administratiboaren ildoak oro har eta lehenbailehen alda ditzan premiatzen duen erabakia dela eta.

– Idazkia, Nafarroako Gobernuarena. Horrekin batera, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak “Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren menpeko erakunde autonomoen zerbitzuko langileak” terminologiari buruz eginiko galderaren erantzuna.

– Idazkia, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andrearena. Horren bidez, Nafarroako 1. Motako Diabetikoen Elkartearekin lan-bilera bat egin dadila eskatzen du. Bilera horren helburua da zelula amekin helburu terapeutikoetarako egiten ari den ikerketa zientifikoa bultzatzeko haien kanpainari buruz informatzea.

– Adierazpen politikoa egiteko proposamena, Palestinak egun bizi duen egoerari buruzkoa. Foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak aurkeztu du.

– Mozioa, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Haren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Lorenzo Goikoa ikastetxe publikoa bana ez dezan eta ikastetxe elebidun gisa manten dezan.

**4an:**

– Adierazpen politikoa egiteko proposamena, palestinarren eta israeldarren arteko gatazkari buruzkoa. Foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak aurkeztu du.

– Mozioa, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Haren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da laguntza-zentroetan lagunduak diren zaharrentzako arretaren kalitatea hobetzeko araudia gaurkotu dezan.

– Idazkia, Nafarroako Gobernuarena. Horrekin batera, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak Igualatorio Médico Quirúrgico delakoarekin sinaturiko hitzarmenari buru eskatutako informazioa.

– Idazkia, Nafarroako Gobernuarena. Horrekin batera, Zabalguneko oinarrizko osasun laguntzako zentroari buruz foru parlamentari Isabel Arboniés Bermejo andreak eginiko galderaren erantzuna.

– Ofizioa, Nafarroako Gobernuarena. Horren bitartez, Albéniz eta Lete andreak izendatu ditu Etxeko indarkeriari eta bikote-kideen arteko indarkeriari aurrea hartzeko neurriei buruzko Foru Lege proposamena aztertuko duen ponentziarako.

– Idazkia, Nafarroako Gobernuarena. Horrekin batera, Pitillasko Udalak jaso dituen dirulaguntzei buruz Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak eskatutako informazioa.

– Idazkia, Nafarroako Gobernuarena. Horrekin batera, Osasunbidean euskara normalizatzeko plan bat eskatuz aurkeztutako eskaerei buruz Batasuna Parlamentuko Taldeak eginiko galderaren erantzuna.

– Adierazpen instituzionala egiteko proposamena, Israelen eta Palestinaren arteko gatazka dela eta. Batasuna Parlamentuko Taldeak aurkeztu du.

– Idazkia, Batasuna Parlamentuko Taldearena. Horren bitartez, talde parlamentarioa Nafarroako Abertzale Sozialistak deitzera pasako dela adierazi dute.

**5ean:**

– Idazkia, Alacanteko Diputazioarena. Horrekin batera, Zerbitzu publikoen kalitateari buruzko II. jardunaldi teknikoen informazio-liburuxka.

– Idazkia, Nafarroako Gobernuarena. Horren bitartez, arkitektura oztopoei buruzko foru legearen betetze mailari buruz foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak egindako galdera ohiko epean erantzutea ezinezkoa dela jakinarazten du.

– Idazkia, Nafarroako Gobernuarena. Horrekin batera, abereak hiltegira eramateko egiten diren osasun-ziurtagiriei buruz foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak eginiko galderaren erantzuna.

– Erabaki proposamena, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak aurkeztua. Horren bitartez, ikusita martxoaren 21ean gertatua zein larria den, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du arkeologiako adituen batzorde bat sor dezan, 4. sektoreko arkeologia-indusketara sartzeko.

– Galdera, Gizarteratze- eta laneratze-programa garatzeko lankidetza-hitzarmenak sinatzeari buruzkoa. foru parlamentari Isabel Arboniés Bermejo andreak aurkeztu du.

– Erabaki proposamena, Gazteluko Plazako indusketei buruzkoa. Batasuna Parlamentuko Taldeak aurkeztu du.

– Berraztertzeko errekurtsoa, Mahaiak 2002ko martxoaren 4an hartutako erabakiaren aurkakoa. ACS-ACR Enpresen Aldi baterako Batasunak aurkeztu du.

**8an:**

– Idazkia, Andrés Indave Galar jaunarena eta beste batzuena. Horren bitartez, Osasun Batzordean agerraldia egin ahal izatea eskatu dute, bitarteko kontratua duten Osasunbidea-NOZeko medikuen egoera azaltzeko.

– Mozioa, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak aurkeztua. Horren bitartez, foru gobernua premiatzen da landa-inguruneko emakumeentzako ekintza-plan bat presta dezan.

– Zuzenketak, Nafarroako Fisioterapeuten Elkargo Ofiziala sortzeko Foru Lege proiektuari Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeak aurkeztuak.

– Idazkia, Nafarroako Gobernuarena. Horrekin batera, Foru Komunitateko Administrazioak alokairu-araubidepean dituen lokalei buruz Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak eginiko galderaren erantzuna.

– Idazkia, Nafarroako Gobernuarena. Horrekin batera, Itoizko eragin-eremuari buruzko plan bat prestatzeko fundazio baterako onetsitako estatutuei buruz Batasuna Parlamentuko Taldeak eskatutako informazioa.

– Idazkia, Nafarroako Gobernuarena. Horrekin batera, Itoizko urtegiko larrialdi planari buruz Batasuna Parlamentuko Taldeak eskatutako informazioa.

– Idazkia, Kontuen Ganbararena, Cintruénigoko Udal Planaren aldaketan legedia bete izanari buruzko txostena egiteko eskaera dela eta.

– Idazkia, Kontuen Ganbararena, “Nafarroako administrazio publikoetako montepioetan afiliatutako funtzionarioen eskubide pasiboen eragin ekonomikoari buruzko azterlan aktuariala” egiteko eskaera dela eta.

– Galdera, harrobi berriak ezartzeari buruzkoa, foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak aurkeztua.

– Galdera, kanpaldietarako instalazioen arriskuen azterlanari buruzkoa, foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak aurkeztua.

– Galdera, Industrializazio Plana egiteari buruzkoa, foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak aurkeztua.

– Idazkia, Socialistas del Parlamento de Navarra eta Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko taldeena. Horren bitartez, Ezgaitasun fisikoa daukaten pertsonen koordinakundearekin lan-bilera egitea eskatu dute, lan-merkaturako sarbidea arautzeko dituen proposamenei buruz informa dezan.

**9an:**

– Galdera, Lizarrako eskualdean zainketa berezien unitate mugikorraren zerbitzua behin-behinekoz emateko sinaturiko kontratuari buruzkoa, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak aurkeztua.

– Galdera, Lizarrako eskualdea 2002ko martxoaren 7an zainketa berezien unitate mugikorraren zerbitzurik gabe egotearen zergatiei buruzkoa, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak aurkeztua.

– Idazkia, Castejóngo Udalarena. Horrekin batera, toki administrazioari buruzko neurriak hartzearen gaineko erabakia.

– Mozioa, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldearena. Horren bitartez, Nafarroako Gobernua premiatzen da laneko jazarpen psikologikoaren aurkako plan bat presta dezan.

– Galdera, Fustiñanako Hidronor zentroan hondakinei ematen zaien tratamenduari eta erabilerari buruzkoa. Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztu du.

– Idazkia, Batasuna Parlamentuko Taldearena. Horren bitartez, Kontuen Ganbarako lehendakariak agerraldia egin dezan eskatu du, “Babes ofizialeko etxebizitzen moduluen bilakaera” txostena aurkezteko.

– Erabakia, Nafarroako Gobernuarena. Horren bitartez, Nekazaritza, abeltzaintza eta elikaduraren arloetarako Nafarroako Foru Komunitateko Laborategi Ofizial eta Bateratua eratzeko Foru Lege proposamena aintzat hartu izanarekin ados ez dagoela adierazi du.

– Idazkia, Nafarroako Gobernuarena. Horren bitartez, baluarteko obretara bisita eginen dela eta lan bilera egin nahi duela adierazi du.

– Idazkia, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldearena. Horren bitartez, ELA, AFAPNA eta CCOO sindikatuen ordezkariekin Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordean lan bilera egitea eskatu du, Nafarroako Polizia Kidegoei buruzko uztailaren 5eko 19/2001 Foru Legearen erregelamendu bidezko garapenari buruz informa dezaten.

**10ean:**

– Idazkia, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldearena. Horren bitartez, CCOO eta Nafarroako Lan Osasunaren Institutuarekin lan bilera egitea eskatu du, enpresetan amatasuna babesteari buruz eginiko txostenaren berri eman dezaten.

– Idazkia, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldearena. Horren bitartez, Osasun kontseilariaren agerraldia eskatu du, garuneko lesioak dauzkaten Erriberako haurrentzako fisioterapia-tratamenduari buruz informa dezan.

– Idazkia, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldearena. Horren bitartez, ELA, AFAPNA eta CCOO sindikatuen ordezkariekin Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordean lan bilera egitea eskatu du, Nafarroako Polizia Kidegoei buruzko uztailaren 5eko 19/2001 Foru Legearen erregelamendu bidezko garapenari buruz informa dezaten.

– Idazkia, Tradisnarena. Horren bitartez, Juan Carlos López Marín jaunaren eskubideak bermatzearren gestioak egin daitezela eskatu du, Marokon preso baitago.

– Zuzenketak, Toki esparruko herri kontsultak arautzen dituen Foru Lege proposamenari Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztuak.

– Idazkia, Nafarroako Gobernuarena. Horrekin batera, “Laneko arriskuei aurrea hartzeko ordezkari sektorialendako laguntzetako programak” kontusailaren betetzeari buruz foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak eginiko galderaren erantzuna.

– Erabakia, Nafarroako Gobernuarena, 2002-2004rako Nafarroako Enplegurako Plana finantzatzeko neurri osagarriei buruzko Foru lege proiektuari aurkeztutako zuzenketan tramitera onartu izanari buruzkoa.

**11n:**

– Foru Lege proposamena, Nafarroako Landa Garapenari buruzkoa. Foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak aurkeztu du.

– Erabakia, Arroizko Udalarena, toki hitzarmena dela eta.

– Erabakia, Burlatako Udalarena, Hobekuntzaren garrantzia dela eta.

– Errekurtsoa, Sortzenekin eta beste erakunde batzuekin lan bilera egitea ukatu zuen Mahaiaren erabakiaren aurkakoa. Foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak aurkeztu du.

– Idazkia, Nafarroako Gobernuarena. Horren bitartez, Eskola Kontseiluko kideak izendatzeko eskatu du.

– Idazkia, Lehendakaritza Ministerioarena. Horren bitartez, ekonomia globalizatuan finantza egonkortasuna, garapen ekonomikoa eta berdintasuna bultzatzeko helburua duten nazioarteko lankidetzako jarduketak egin ditzan Espainiako Gobernua premiatzen duen erabakia jaso izanaren berri eman du.

– Idazkia, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldearena. Horren bitartez, 2001 eta 2002 urteetan Nafarroako Gobernuak NUPekin egindako hitzarmen eta kontratuei buruzko txostena egin dezan eskatu dio Kontuen Ganbarari.

